

Minas

Instituto
Educación
Secundaria

Bigarren
Hezkuntza
Institutua

COVID-19ren AURREKO PREBENTZIO NEURRIAK

21-22 Ikasturtea

1.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

1.1 Etxean bertan tenperatura hartzea gomendatzen da ikastetxera joan aurretik.

> 37° bada edo COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak badituzte, ez dira joango ikastetxera eta dagokien osasun zentrorara deituko dute.

Ikastetxera deitu edo tutorea abisatu, lehenbailehen.





1.2 Maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu.



Bigarren maskara bat gordeta eramatea egokia izango litzateke.

1.3 Ikasleak ikastetxean dauden bitartean, 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia mantendu beharko dute.






1.4 Araudian araututako salbuespenen batengatik maskararik erabili ezin duten 12 urtetik gorako ikasleen kasuan, salbuespen hori medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez edo Osakidetza dagokion medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu behar da. Kasu horietan, ikasle horiek ezin izango dira gainerako taldekideekin elkarreraginean aritu, eta prebentzio- eta higiene-neurriak areagotuko dira, eta ez dira aplikatuko aurreko puntuan distantzien eta kontaktu-mugen inguruan deskribatutako erlaxazioak.

2.- Arautegia



Gure aukeren barruan beharrezkoak ez diren kutsadurak saihesteko eta ikasleen artean ohitura txarrak ezabatzen saiatzeko asmoarekin, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hezkuntza zentroetan jarduteko Protokolo Orokorrean ezarritako Higiene Arauak betetzen ez badira, jokabide **OSO LARRIA** suposatuko du eta ondorioz, aldi baterako kanporaketa eta dagokion neurri zuzentzaile bat aplikatuko da:

- 
- Maskara ez eramatea edo ez erabiltzea modu egokian. Material higienikoa modu desegokian erabiltzea (gel hidroalkoholikoa, papera, desinfektantea...).
 - Eztul edo doministiku apropos egitea komunitate hezitzaileko edozein kideari.
 - Edozein gelakide baten materiala hartzea baimenik gabe eta erabiltzea higiene neurriak erabili gabe.
 - Baimenik gabe, ordenagailua eta arbela digitala erabiltzea.
 - Irakasle zein ikasle baten tokian jesartzea.



Ikasleen txertaketa funtsezko faktorea izango da bai ikasturtearen hasieran, bai ikasturtearen martxa onean. Hori dela eta, Osakidetzak hasitako txertaketa-kanpainan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, oraindik ez baduzue egin.

Besterik gabe, agur bero bat.